

gizartea eta kultura garaikidea

APIRILA MAIATZA EKAINA 2022



Jar zaitez harremanetan Az-rekin

info@azkunazentroa.eus



Lege gordailua BI-249-2014

© 2019. Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A.

ARTE BISUALAK / ARGI INSTALAZIOA
MAI. 30 > ABU. 30.

Grimanesa Amorós

Scientia

Grimanesa Amorós artistaren *Scientia* argi-instalazioa Atarian egongo da ikusgai. Argiak pertsonen gogoaldertea eta buru-osasuna hobetzeko duen garrantzirik abiatuta, Peruko sortzaileak instalazio hau proposatzen du, norik bere buruaz hausnartzeko eta errealizazio pertsonalerako uneei bide eman nahian. Pieza «bitarteko bat da gure ni emozionalera iristeko, adierazitako espazio mentala emanez, autoerrealizazioa elikatzeko eta komunitatearen konpromisoa sustatzeko».

Site specific instalazio hau [The Wellbeing Summit for Social Change](#) nazioarteko lehen kongresuaren programa artistikoaren barruan kokatzen da. Ekainaren 1etik 3ra Bilbon egingo den kongresu horrek aldaketa soziala eta komunitarioa jorratuko ditu, ekintza kolektiboaren bidez.

Topaketa, besteak beste, Azkuna Zentroan egingo da, hainbat workshopekin, zinemaldi batekin eta programa eszeniko batekin.

GRIMANESA AMORÓS (Lima, Peru) New Yorken bizi eta lan egiten du. Diziplinarteko artista honen interesek historia soziala, ikerketa zientifikoa eta teoria kritikoa hartzen dituzte barne. Teknologiarekiko harreman zuzena da Amorós-en praktikaren bereizgarrietako bat. Eskultura, bideoa eta argiztapena erabiltzen ditu, identitate pertsonalaren eta komunitatearen nozioa argitzen duten obrak sortzeko. Bere lanak sari eta beka ugari jaso ditu nazioartean, besteak beste, X Tumi USA Award (Miami, FL) saria eta Art Omi (Columbia County, NY)



Maiatzaren 30etik abuztuaren 30era

Kulturen Ataria



 thewellbeingsummit2022.org

Grimanesa Amorós



 The Wellbeing Project